

## -DUN ATZIZKIAZ

Jesus Mari Makazaga Eizagirre

Euskal Herriko Unibertsitatea

### SARRERA<sup>1</sup>

*-dun* atzizkiaren alderdi batzuk aztertzea du helburu lan honek, ikerketa-proiektu zabalago baten ondorioetako bat den artikulu honek; proiektu horretan *-ko* eta *-dun* atzizkien erabilerak eta haien arteko alternantzia dira, besteak beste, azterkizun. Lan honetan, ordea, ez dut alternantziaren auzia aztertuko; batez ere *-dun* atzizkiaren inguruko kontuak izango ditut hizpide.

Orain arte *-dun* atzizkiaren gainean gutxien aztertu edo aipatu diren puntuak ukituko ditut. Horregatik (gutxi aipatu izan direlako), eta bazter utzi ditudan puntuak (*-ko/-dun* alternantzia, adibidez) nahiko ongi tratatu izan direlako azken aldiko gramatika lanetan: zenbait egituraren maiztasunei buruzko zehaztapentxo batzuk gorabehera, nahiko ados nago orain arte *-ko* eta *-dun* atzizkien alternantziak esan direnekin (besteak beste, honakoekin: Euskaltzaindia 1987; Azkarate-Altuna 1992; Zabala 1999); zehaztapen horiek hurrengo lan baterako utziko ditugu.

1994. urteko Euskaltzaindiaren XIII. Biltzarrean, Leioan egin zenean, LEF batzordeak lan benetan interesgarria aurkeztu zuen, “Eratorpenaz” izenekoa (ikus Euskaltzaindia 1994b). Gaur egungo erabileran eratorpenak sortzen dituen zenbait arazo eta erabilera oker aurkeztu ziren artikulu hartan; denak lau irizpideren arabera sailkatuak. Arazo-iturri nagusi diren atzizkiak zerrendatu ziren, eta kasu bakoitzean egiten diren erabilera desegokiak deskribatu. *-dun* atzizkia ez da zeharbidez baizik aipatzen lan horretan: *-dun*-i bakarrik ez dagokion arazo baten barruan besterik ez (geroago aipatuko dugun morfonologia aldaketan barruan).

Nolanahi ere, *-dun* atzizkia arazo-iturri ziren atzizkien artean sartu ez bazuten ere, ikusten dugu atzizki hau askotxotan aztertu eta aipatu izan dela gramatika lanetan; haren atzizki izaera berezia, eta batez ere *-dun* eta *-ko*-ren arteko korapilo askagaitza ziren aipagai. Besteak beste,

---

<sup>1</sup> Artikulu hau Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHUK) diruz lagundutako ikerketa baten (0033.356-H-13674/2001) emaitzetako bat da. Hemen aurkezten diren emaitzak, beraz, taldean eginiko ikerlan zabalago horren baitan kokatu behar dira.

Altuberengandik hasi (1929), Euskaltzaindiaren Gramatika batzordetik pasa (Euskaltzaindia 1987), eta Azkarate-Altuna (1992) eta Zabalarenganaino (1999) iristeko. Gai korapilotsua den seinale, nonbait. *-ko* eta *-dun*-en arteko alternantzia esplikatzea, oinarriaren kategoria gramatikala zein den azaltzea eta abar ez dira, dirudienez, hain eginkizun errazak.

Esan bezala, korapilo horiek denak askatzen ahalegintzea ez da lan honen helburua: proiektu zabalagoarena bai, agian. Horietako batzuen gainean arituko gara, baina batez ere *-dun* atzizkiak; orain arte gehiegi aipatu ez diren puntu batzuez, aritu ere.

*-dun* atzizkia aztertzeko, Euskaltzaindiaren *Orotariko Euskal Hiztegiko* corpusa erabili dut (aurrerantzean *OEH*), XVI. mendetik 1960-70 inguruetarainoko euskararen idatzizko literatura-tradizioaren zati handi bat jasotzen duen corpus informatizatua (ikus Euskaltzaindia 1994a). Hurrengo baterako utziko dugu XX. mendeko hizkuntza idatzia biltzen duen *Eguno Euskararen Bilketa-lan Sistemakoa (EEBS)* corpusaren azterketa.

Hiru puntu landuko ditugu artikulu honetan: lehendabizikoan, atzizkiaren aldaera desberdinak aipatuko ditugu; batez ere ikusiko dugu ea arau morfonologiko garbirik atera daitekeen literatura-tradizioko erabileratik; bigarren puntuan, *-dun* atzizkiak sortzen duen hitz eratorriaren kategoria gramatikaren gainean jardungo dugu; azken puntuan, berriz, *-dun* atzizkiak sortutako izenondoaren kokaguneaz arituko gara, izenaren ezkerretara ala eskuinetara erabili izan den, eta horretan ba ote duten zerikusirik gramatikariak esandakoek edota sintagmaren egiturak berak.

## 1. ATZIZKIAREN ALDAERAK

Aipatu nahi nukeen lehenbiziko puntua, esan bezala, atzizkiaren aldaerena da; kasu honetan *-dun* eta *-tun* formena.

Erroaren (oinarriaren) bukaeran kontsonante txistukariaren bat egokitzen denean, zer forma hartzen du atzizkiak? Ahostuna ala ahoskabea da atzizkiaren hasierako leherkaria? Ez hori bakarrik: oinarriaren bukaerako txistukaria afrikatua denean, zer gertatzen da hitz eratorrian? Frikari bihurtzen da txistukaria ala afrikatu izaten jarraitzen du?

Arrazoi zuen LEF batzordeak lehen aipatutako lan hartan (nahiz euskararen erabiltzaileontzat “berri” onegia ez den) zioenean atzizkiz atzizki edo agian hitzez hitz aztertu beharreko kontua

izan zitekeela hau; banan-banan aztertu, eta *Hiztegi Baturako* hitzez hitz erabaki beharrekoa: alegia, ez zegoela lege edo arau biribilik ematerik. Izan ere, *OEH*ko datu-basean era guztietariko erabilerak agertzen dira.

Gorago esan bezala, bi aldaketa morfonologiko gerta daitezke aipatzen ari garen testuinguruan:

- Erroaren bukaerako txistukariak atzizkia ahoskabetzea (-dun > -tun)
- Erroaren bukaerako txistukari afrikatua frikari bihurtzea (-tz, -ts + -dun > -z, -s + -tun / -dun...)

Bada, ez da inolaz ere sistematikoa kontua. Alde batetik, aldaera ahoskabetuak ditugu:

(1) *akastun* (*Hiztegi Batua*, aurrerantzean *HB*), *bihoztun* (*HB*), *hiztun* (*HB*), *aberastun*, *gaztun*, *gorpuztun*...

Baina, aldaera ahostuna ere badugu:

(2) *kirasdun* (*HB*), *gatzdun* (*HB*) (frikaritu gabea), *horzdun*, *adasdun* (*HB*), *balzdun*, *mutur-zorrozdun*, *neurtizdun*...

Horretaz gain, ikusten den bezala, txistukari afrikatua frikari bihurtu den kasuak, eta afrikatuta gorde den kasuak ere bai.

Beraz, erabilerak (eta Euskaltzaindiaren erabakiak) ez dira erabatekoak izan, eta zoritxarrez, hitzez hitz ikasi beharko dugu -*dun*-en zein aldaera erabili edota, bestela, aldioro *Hiztegi Batura* joan.

Nolabaiteko araua-edo ematekotan, bakarra emateko moduan gaudela iruditzen zaigu: “*Txistukari frikariak nekez ahoskabetzen du -dun atzizkia*”

Arruntenak forma hau duten kasuak ditugu:

(3) *Sosdun* (*HB*), *pozdun*, *jolasdun*, *interesdun*, *konpasdun*, *tesisdun*

Nahiz eta badiren *sostuna* bezalako testigantza bakan batzuk.

Gainontzean, ez dago erabateko erabilerarik, ez atzizkiaren ahoskabetzean, ez eta txistukari afrikatuaren jokabidean ere; joera bezala, azken horretan, esan daiteke ohikoagoa dela txistukari afrikatua frikari bihurtzea, afrikatu jarraitzea baino, batez ere mendebaldeko literaturan, eta salbuespenak salbuespen. Atzizkiaren ahoskabetzeari dagokionez, ez gara joerez ere hitz egitera ausartzen.

Besterik dira aditz-izena oinarritzat hartuz, *-tun* aldaera bakarrik duten kasuak; Azkuek berak *Morfología vasca*-n beste atzizki bat dela dio, esanahiz eta azpikategorizazioz, aztertzen ari garen *-dun* atzizkitik bereizten dena (Azkue 1925). Horiak guztiek aldaera ahoskabea dute literatura tradizioan: *erakustun, irabaztun, jostun, erostun...*

## 2. HITZ ERATORRIAREN KATEGORIA GRAMATIKALA

*-dun* atzizkiak izenondoak sortzen ditu. Horretan ados daude gramatikari guztiak; kontua da, ordea, *-dun*-ek sortzen duen izenondoak sintaktikoki nola jokatu izan duen ikustea. Artikulu honen azken atalean aztertuko dugu izenarekiko kokagunearen auzia, izenaren aurretik ala ondoren behar duen edota noiz aurretik, noiz ondoren. Hori, izenaren laguntzarekin agertzen den kasuetan, zeren eta askotxotan ikusiko baitugu *-dun* atzizkiaz osatutako izenondoa bere horretan, bakar-bakarrik, izen-sintagma osatuz, dela izen baten erabileran (*euskaldunak eta erdaldunak elkartu ziren festan*), dela atributu funtzioan (*ni naiz erruduna*).

Kasu askoz gehiagotan erabili izan da era horretara, bakarrik, beste erara baino (izen bati lagunduz, aurretik nahiz ondoren). Hitz asko dira guztiz lexikalizatu direnak eta batez ere izen edo atributu gisa erabiltzen direnak (ahaztu gabe, noski, jatorrizko izenondo erabilera beti dela zilegi).

Hona hemen, *OEH*-ko corpuseko maiztasun eta guzti, era honetako kasuak:

|                             |                      |                       |
|-----------------------------|----------------------|-----------------------|
| (4) <i>euskaldun</i> (1420) | <i>hiztun</i> (125)  | <i>agintedun</i> (6)  |
| <i>erdaldun</i> (235)       | <i>elebidun</i> (2)  | <i>bakaldun</i> (400) |
| <i>fededun</i> (155)        | <i>letradun</i> (20) | <i>tituludun</i> (2)  |
| <i>sinestedun</i> (7)       | <i>errudun</i> (120) | <i>kargudun</i> (115) |

|                       |                       |                           |
|-----------------------|-----------------------|---------------------------|
| <i>dirudun</i> (63)   | <i>hogendun</i> (24)  | <i>karreradun</i> (1)     |
| <i>sosdun</i> (5)     | <i>hobendun</i> (196) | <i>haurdun</i> (33)       |
| <i>zordun</i> (202)   | <i>bekatudun</i> (3)  | <i>bizidun</i> (104)      |
| <i>zaldun</i> (437)   | <i>lepradun</i> (17)  | <i>arduradun</i> (18)     |
| <i>txapeldun</i> (35) | <i>legenardun</i> (5) | <i>zorigaiztodun</i> (23) |

Esan bezala, izenondo hauek (batzuk beste batzuk baino gehiagotan) izen soil gisa edo atributu gisa oso sarritan erabiltzen dira; izenondo-erabileraren aldean maiztasun askoz altuagoa erakusten dute jokabide horretan: maiztasun altueneko kasuak aparte utzita (euskaldun 1400 eta zaldun 437, gehienbat izenik gabe erabiltzen direnak), 4000 adibideko corpusean, 500 adibide ingurutan bakarrik agertzen da *-dun* atzizkia daraman hitz eratorria izen bati lagunduz; gainerakoak, orain aipatzen ari garen kasuak dira, izen soil edo atributu gisakoak.

### 3. *-DUN* IZENONDOAREN KOKALEKUA

Ez da gehiegi aipatu izan kontu hau, eta aipatu denean ere, horren gainean datu gehiegi eman gabe egin da. Gramatika lanetan aipatu direnak egiaztatzen edo gezurtatzen ahaleginduko gara puntu honetan, betiere *OEH*-ko datuen arabera.

Azkuek, *Diccionario Vasco-Español-Francés-en* (Azkue 1905-06) eta *Morfología Vasca-n* (Azkue 1925), dio *du* aditza eta *-n* atzizkia elkartetik datorrela *-dun* atzizkia, eta horren ondorioz, izenaren aurretik behar duela beti *-dun* daraman unitateak (“decimos *bizardun arotza* más y mejor que *arotz bizarduna*”); horixe jasotzen du Villasantek ere *Palabras vascas compuestas y derivadas* liburuan (Villasante 1974), Azkueren iritzia ontzat emanez.

Euskaltzaindiaren gramatikan, berriz, *Euskal Gramatika Laburra: Perpaus bakuna* liburukian (Euskaltzaindia 1993: 155), Azkueren baieztapenaren kontra datorren aipamen bat egiten da: “Badirudi *dirudun mutila* bezalako itzuliak ez zirela gehiegi erabiltzen Azkuek bere lanak egin zituen arte”.

Ibon Sarasolak ere *Euskara Batuaren Ajeak* liburuko *frantziarra* sarreran dio tradizio nabarmen hobe duela *aulki besodunak* joskerak, *besodun aulkiak* baino (Sarasola 1997: 89).

Egiak al dira Sarasolaren eta Euskaltzaindiaren baieztapen horiek? Baiezkoan nago. Alabaina, Sarasolaren iritziarekin erabat ados egoteko, zehaztapenen bat edo beste behintzat egingo nituzke.

- Oro har, egia da (*OEH*-ko datuen argitan) tradizio hobea duela izenaren ondorengo erabilerak: kopuruaren eta antzintasunaren aldetik. Lau bat mila adibideko lagina aztertu ondoren, haren alde egiten du, kopuruaren aldetik, tradizioak, baina agian ez hain nabarmen, baizik 3/2 proportzioan (batez beste, 300 / 200 adibide, hurrenez hurren).
- Badirudi, Euskaltzaindiaren baieztapenak baduela funtsa: alegia, Azkue baino lehenagoko literatura-lanetan ez dirudi gehiegi erabiltzen zenik *dirudun mutila* hurrenkera. *Morfología Vasca*-n egiten duen baieztapenak (“decimos *bizardun arotza* más y mejor que *arotz bizarduna*”) eragina izan zuen nonbait ondorengo literatura-ekoizpenean. Izan ere, aurkitu ditugun *bizardun arotza* gisako adibideetatik %10 inguru besterik ez dira Azkue baino lehenagokoak (Leizarraga, Mogel, Hiribarren, Kardaberaz, Iztueta, Añibarro, Mendiburu, Uriarte eta Goietxeren adibide bakan batzuk). Gainerako guztiak XX. mendekoak dira. *Arotz bizarduna* hurrenkera, aldiz, askoz ere gehiagotan agertzen da konparazioz autore zaharretan: hurrenkera hori duten adibideetatik %25-30 dira XX. mendea artekoak. Gainera, beste hurrenkera erabiltzen zuten autore horiek berek ere erabiltzen dute hau; maiztasun altuagoarekin erabili ere.
- Azkueren itzalaz gain, sintagmaren egiturak berak ere badirudi zerikusia izan dezakeela *-dun* atzizkia duen unitatea (izenondoa edo izenlaguna) izenaren aurretik edo atzetik eramatearekin. Alegia, egia izan arren izenaren atzean erabiltzeko joera nagusi dela, hori batez ere nabarmena da *-dun* daraman izenondoa bakuna denean, edo behintzat oso konplexua ez denean. Konplexuagotuz doan neurrian, joera nabaritzen da izenaren ezkerretara ekartzeko.

Azter ditzagun, kasu desberdinetara etorriaz, bi kokalekuetan aurkitu ditugun adibideak:

### 3.1. IZENA + -DUN (*Behi esneduna*)

Oro har, tradizio hobea du honek *esnedun behi* egiturak baino: kopuruz gehiagotan erabiltzen da, eta autore zaharrek ere gehiago erabiltzen dute. Sailka ditzagun hurrenkera hau darabilten egitura desberdinak:

#### 3.1.1. -DUN izenondoa soila den kasuak.

Gorago esan bezala, askoz ere nabarmenagoa da izenaren ondorengo hurrenkera, -*dun* atzizkiak sortzen duen izenondoa soila den kasuetan, osagai bakarrekoa den kasuetan:

|                           |                          |                            |
|---------------------------|--------------------------|----------------------------|
| (5) <i>izar adatsduna</i> | <i>zeru adiduna</i>      | <i>izaki adimenduna</i>    |
| <i>gizon armaduna</i>     | <i>musika konpasduna</i> | <i>bihotz arantzaduna</i>  |
| <i>bertso bihotzduna</i>  | <i>gizon bizarduna</i>   | <i>gazte diruduna</i>      |
| <i>behi esneduna</i>      | <i>kristau fededuna</i>  | <i>zuhaitz frutaduna</i>   |
| <i>ur gatzduna</i>        | <i>abere illeduna</i>    | <i>dantzari galtzaduna</i> |

Batzuetan beste izenondo batzuekin enumerazioa osatuz doa -*dun*-ek sortutako izenondoa, eta, jakina, izenondo horiek nahitaez behar duten kokalekuan joan ohi da berez kokaleku libreagoa duen -*dun* izenondoa, atzean:

|   |
|---|
| (6) <i>orein izpiltsu <u>adarduna</u></i>                   |
| <i>gizon gazte <u>bihozduna</u></i>                         |
| <i>gizon on-egile, prestu, <u>bihotzdun</u>, jakintsuna</i> |
| <i>esne eder <u>aparduna</u></i>                            |
| <i>mutiko zoli on <u>etorkizun-duna</u></i>                 |
| <i>gizon <u>bizardun</u> beltzaran zabalote bat</i>         |
| <i>arbol <u>ostodun</u> ederra</i>                          |
| <i>paseo <u>itzaldun</u> leun bat</i>                       |

#### 3.1.2. -DUN izenondoa konplexua den kasuak.

Askoz gutxiago dira, -*dun* daraman izenondoa konplexuagoa (osagai bat baino gehiagokoa) izanik, izenaren ondorengo hurrenkera duten kasuak; adibide batzuk badira, nolani ere:

|                                  |                                       |
|----------------------------------|---------------------------------------|
| (7) <i>mutil [anka arindun]a</i> | <i>usakume [aragi berodun]a</i>       |
| <i>aita xahar [ile xuridun]a</i> | <i>neskatxo [begi baltz ederdun]a</i> |

zugatz [enbor-lodidun]a

aguretxo [esku-dardaridun]a

belar [usain gozodun]a

auzo [miin gaistodun]a

3.1.3. Bereziki ondo zaindu izan dira izenaren ezker aldeko lekunea beteta zuten kasuak (izenlagun bat dutela, adibidez): horren arrazoiak izan litezke lekune hori gehiegi kargatu nahi ez izana, sintagmaren oreka gordeaz, edota ezker alde gehiegi kargatuz (osagai batez baino gehiagoz), anbiguitasunak edo interpretazio okerrak sortzeko arriskua legokeelako zenbait kasutan: [urrezko] ontzi [estalkiduna] erabili da, eta ez *urrezko estalkidun ontzia*.

Bestela, egoki interpretatzeko zailtasunak:

(8) Urezko estalkidun ontzia?? > A interpretazioa ala B?

A. [urrezko estalkidun] ontzia

B. [urrezko] [estalkidun ontzia]

Gauza bertsua azpiko sintagmen kasuan. Batzuetan testuinguruak lagundu gaitzake sintagma ondo interpretatzen, baina beti izango zaigu deskodetzen errazago eta azkarrago, *-dun* izenondoa izenaren atzera eramanda.

(9) [deabruaren gisako] bare [adardun]a / deabruaren gisako adardun barea (??)

[zeruko][nire] mai [atsegindun]ean

[nire] bertsu [bihotzdun]ak / nire bihotzdun bertsoak (?)

[lurrezko] erretillu [bernizdun]ak

[Axularren] libru [famadun]a

[Elorrioko] seme [bijotz andidun]a

[Jesusen] ardi [anima fededunak] / Jesusen anima fededun ardiak (?)

[Biztoki biko] baserri-etxe [tellatu zabaldu] bat

3.1.4. Bariazio estilistikoa

Zenbaitetan, *-dun* atzizkiak eskaintzen dituen aukerez baliatuz, aldaera estilistiko moduan erabili izan da *-dun* izenondoaren mugikortasun hori. *Arotz bizarduna* hurrenkera oso egokitzen jotzen ez zuenarena, Azkuerena, da ondorengo adibidea:

(10) Senar gonaduna zan bata; bestea, ia kaltzadun emaztea

Berez izenaren aurrean joatea ikusten zuen arren egokiena, izenaren ondoren erabiltzea ere zilegi ikusi zuen kasu honetan behintzat, elkarrengandik gertu samar dauden bi sintagmatan egitura berbera ez errepikatzearren.

### 3.2. -DUN + IZENA (*Esnedun behia*)

Agian beste ordenamendua baino gutxiago erabiltzen da, baina ez askoz gutxiago: esan bezala 3/2 proportzioan gutxi gorabehera. Berrixeagoa dirudi; batez ere XX. mendekoak dira adibideak.

#### 3.2.1. -DUN izenlaguna bakuna den kasuak.

-*dun* daraman oinarria bakuna denean ere erabiltzen da izenaren aurretik; esan bezala, batez ere XX. mendean, eta ez hain gutxitan:

- (11) [abarkadun] gizona      [adimendun] izakia      [alkooldun] edaria  
[arantzadun] alanbrea      [argidun] izarra      [bixardun] jakintsuak  
[bibotedun] gizona      [azentudun] silaba      [emaztedun] apaizak  
[gonadun] lagunak

#### 3.2.2. -DUN izenlaguna konplexua den kasuak.

-*dun* atzizkiaren oinarria konplexuagotuz doan neurrian, izenaren aurrera eramateko joera nabarmentzen dela iruditzen zaigu; izenaren ondoren baino gehiagotan agertzen dira izenaren aurretik era honetako egiturak.

- (12) [kristalezko abardun] sagar-ondo  
[urrezko katedun] gizona  
[entzute andidun] gizona  
[urre ta arri-bitxidun] alkija  
[biotz andidun] olerkarija  
[seme-alaba azidun] gurasoak  
[diru ta balijodun] enparau gauzak  
[arpegi balzdun] miatzarija  
[negar ta barredun] biotzak  
[ipuin barregarridun] liburua

*[begi bixidun] motiko beltxaran bat*  
*[billar birla baten itxurazko burudun] frailea*  
*[atorra dotoredun] pelota-txapelduna*  
*[lore ta usai goxodun] belarra*  
*[zeruko grazidun] anima*  
*[aots lodidun] gizonezkoa*  
*[tximini luzedun] ola lantsuak*  
*[azti antzedun] gizakumea*  
*[bisera-belzdun] kapera zuria*  
*[biotz garbidun] ongilleak*  
*[talo itxurako arpegi zabal borobil ta matralla gizen gorridun] aitzur neska bat*  
*[lore ta usai gozodun] belarrak*  
*[begi urdin gozodun] mutil koskor polita*  
*[ego luzedun] arranoa*  
*[iru margodun] ikurrin alaigarrija*  
*[txapel mutur-zorrozdun] gizon bat*  
*[negar ta barredun] biotzak*

Sintagma osoa dekodetzeko arazo handiagoak leudeke *-dun* daraman unitate konplexua izenaren ondorenera eramanez gero. Izan ere, kasu horretan ez genuke ezer jakingo sintagma osoaren egituraz harik eta sintagma luze horren bukaerara joan arte, zeren osagaien arteko mugak markatzen dituzten elementuak (*-dun* atzizkia eta determinatzaileak) bukaeran egongo bailirateke.

Askotan izen-sintagmaren ardatz-izena bera ere lehen bistadizoan identifikatzen zailtasunak izango genituzke behin baino gehiagotan; ardatza den izen horren eta ondoren letorkeen osagai konplexuaren artean ez bailegoke ezer, eta *-dun* daraman osagaiaren partetzat hartzeko aukera emango bailiguke; betiere, esan bezala, lehendabiziko bistadizoan. Adibidez, honako hiru adibideok horrela eman dira:

- (13) *[biotz andidun] olerkarija*  
*[arpegi balzdun] miatzarija*  
*[begi bixidun] motiko beltxaran bat*

Eta ez, honela:

- (14) *olerkari biotz andiduna*  
*miatzari arpegi balzduna*  
*motiko begi bixidun beltxaran bat*

Hurrenkera honen arazoetako bat, kasu hauetan, ardatza zein den argi ez geratzea da, hitz elkarketa dagoela ere pentsa baitaiteke (*olerkari-bihotz, meatzari-arpegi, mutiko-begi*).

Ohartu gaitezen, bestalde, adibide-zerrendako lehendabizikoa hartzen badugu ([*kristalezko abardun*] *sagar-ondo*), izenaren aurretik doana unitate bakarra dela, *kristalezko abarra* (*duena*), eta bi osagai bereizi izan balira ([*kristalezko*] [*abardun*] *sagar-ondo*), seguruenik izenaren atzera eramango zuela idazleak *-dun* izenondoa ([*kristalezko*] *sagar-ondo* [*abardun*]a).

### 3.2.3. Zenbatzailedun izenlagunak ditugun kasuak.

Zenbatzaileekin ere badira *-dun* atzizkia duten kasuak, nahiz eta horrelakoetan *-ko* atzizkidun egiturek erakusten duten nagusitasun osoa. Beraz, nolabaiteko *-ko* / *-dun* alternantzia dago kasu honetan, normalean *-ko*-ren alde erabakitzen dena. Arrazoi horregatik (zenbatzailedun egitura hauetan *-ko* atzizkia daramana beti izenaren aurretik doalako) edo zenbatzailedun egitura hauek ere osagai konplexua osatzen dutelako (*sei laukidun, zazpi burudun, bostehun bat arimadun...*), izenaren aurretik eman izan dira literatura-tradizioan.

- (15) [*sei laukidun*] *antzerkia*  
[*bi begidun*] *oro*  
[*zulo bidun*] *eskopeta*  
[*zazpi atedun*] *Tebas*  
[*zazpi burudun*] *suge nazkagarria*  
[*iru mandodun*] *burdi bat*  
[*iru margodun*] *Euzko-ikurrin ederra*  
[*268 orrialdedun*] *liburu lodi bat*  
[*bosteun-bat arimadun*] *erria*  
[*iru egintzadun*] *antzerkia*  
[*sei neurtizdun*] *aapaldia*

[*naigabe askodun*] aita  
[*orri askodun*] (*egunkari*)a  
[*urte askodun*] (*lege*)a

#### 4. ONDORIOAK

- Ez dago euskara batuko hiztegiari (*Hiztegi Batuari*) begira erabateko arau morfonologikorik proposatzerik, ez atzizkiaren aldaerei, ez eta gerta daitezkeen bestelako aldaketa morfonologikoei dagokienez ere (adibidez, txistukari afrikatuak frikaritzeari). Kasuz kasuko tratamendua behar dute *-dun* atzizkiaren bidez sortutako hitz eratorriek. Joerez agian hitz egin daiteke, baina ez gauza finkoagoez.
- Oso arrunta da *-dun*-ek osatzen duen izenondoa izen-erabileran edota atributu-erabileran egokitzea.
- Hurrenkerari dagokionez, ezin esan daiteke, gure ustez, bi aukeretako bat gomendatu eta bestea baztertu behar denik: joerak joera, biak dira zilegi. Hala ere, ahalegindu gara erabakitzen bakoitzak duen tradizioa, eta zein egoeratan erabili izan diren. Oro har, nagusi dela uste dugu *behi esnedun* hurrenkerak, antzinasunez nahiz kopuruz; mesedegarria dirudi terminologia-beharrei begira ere *-dun* atzizkiak eskaintzen dizkigun aukerez baliatzea: alegia, izen soil gisa erabil daiteke, eta baita izenaren ezker nahiz eskuinaldean ere. Horrek ekar ditzakeen abantailekin: gaizkiulertuak saihesteko modua, izen-sintagmaren osagaiak orekatzekoa, eta abar. Sintagmaren esanahia deskodetzeko errazanak diren hurrenkerak erabiltzeak ere ez dirudi nolana hiko kontua aukeren artean erabakitzeko orduan.

#### BIBLIOGRAFIA

- Altube, S. 1929. *Erderismos*. Bermeo.
- Azkarate, M.; Altuna, P. 1992. “-ko / -dun atzizkiez”. In *IKER 6* (Luis Villasanteri omenaldia). Euskaltzaindia, 91-112 or.
- Azkue, R. M. 1905-1906. *Diccionario Vasco-Español-Francés*. Bilbo (La Gran Enciclopedia Vasca, 1929).
- . 1925. *Morfología Vasca*. Bilbo. (2. arg. Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca, 1969).
- Euskaltzaindia 1987. *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak I (Eraskina)*. Bilbo: Euskaltzaindia.

- . 1993. *Euskal Gramatika Laburra: Perpaus Bakuna*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- . 1994a. *Orotariko Euskal Hiztegia: Testu Corpusa*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- . (LEF batzordea) 1994b. “Eratorpenaz”. *Euskera*, 39, 1039-1058 or.
- Sarasola, I. 1997. *Euskara Batuaren Ajeak*. Donostia: Alberdania.
- Villasante, L. 1974. *Palabras Vascas Compuestas y Derivadas*. Oñati: Editorial Franciscana Aránzazu.
- Zabala, I. 1999. “Izen-sintagma konplexuak: adjektiboen eta izenlagunen segidak”. In Odriozola (ed.) *Zenbait Gai Euskara Teknikoaren Inguruan*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea, 107-157 or.